

## KONTROL MOZIOA

### **Txofre plazako lurrazpiko aparkalekua dela eta**

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2024ko maiatzaren 20an Ogasuneko Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

## JUSTIFIKAZIOA

Udalak 1977an esleitu zuen Txofre plazako ibilgailuentzako lurrazpiko aparkalekua eraiki eta ustiatzeko emakida. Udala da 462 garaje plaza dituen aparkalekuaren jabea.

Aparkaleku horrek eremuko etxebizitza bloke batzuetako aparkaleku pribatuak ere baditu, 1.006 plaza.

2016ko otsailaren 16an amaitu zen aparkalekua ustiatzeko kontratuaren indarraldia, eta Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki bat hartu zuen, oraindik indarrean dagoen zerbitzua ematen jarraitzeko. Orain dagoena irregulartasun egoera bat da, eta argi dago egoera horrekin amaitu behar dela eta irtenbide bat bilatu behar dela.

Irregulartasun egoera dela Herri Kontuen Euskal Epaitegiak ere aipatu zuen 2021eko txostenean. Donostiako Udaleko Ondare eta Ekonomia Kudeaketarako sailek ere aholkatu zuten, 2020an, «beharrezkoa dela kontratu berri bat lizitatzea lehenbailehen». Lau urte igaro dira, eta berdin segitzen dugu.

Batzordean Mugikortasuneko zinegotziaren eta Ogasuneko zinegotziaren hitzak entzun genituen, baina ez genuen irtenbiderako berehalako soluziorik entzun.

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

Jabeen elkargoarekin lan bat egin dela aipatu ziguten, elkargo horrekin dituzten zailtasunak azaldu zizkiguten, egin beharreko eraberritze-lanei buruz ere hitz egin ziguten (jakin baitakigu aparkalekua eraberritu behar dela) eta etorkizunean egon litezkeen aukerei buruz ere bai.

Jakitun gara jabeen elkargoarekin egon daitezkeen arazoez eta Txofreko aparkalekua zaharkitua geratu dela eta eraberritze lanak behar dituela.

Baina orain, une honetan, arazo larriena da irregulartasun egoera batean dagoela aparkalekua bera eta horrek ezin duela horrela jarraitu. Lehenengo urratsa izan behar da irregulartasun egoera horrekin amaitzea Udal Gobernuak eta gerora bestelako arazoak konpontzea eta haientzako irtenbide egoki bat bilatzea.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, Txofreko aparkalekuan egun dagoen irregulartasunarekin amaitzeko, haren kudeaketa bere gain har dezala gehienez ere urtebeteko epean.

Donostian, 2024ko maiatzaren 23an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego  
EH BILDU udal taldeko zinegotzia